# CLUSTERPAPEL

## Cooperación Sectorial 2023 Sektoreko Lankidetza

**4**
¿Qué somos?
Zer gara?

**10**
¿Qué ofrecemos?
Zer eskaintzen dugu?

**12**
Gobernanza
Gobernantza

**14**
Actividades en cooperación 2023
2023an lankidetzan egindako jarduera

**16**
Innovación, Industria 4.0
Berrikuntza, 4.0 Industria

**19**
Gestión de personas
Pertsonen kudeaketa

**20**
Bioeconomía Circular Descarbonizada
Bioekonomia Zirkular Deskarbonizatua

**22**
Gestión avanzada, Internacionalización
Kudeaketa aurreratua, Nazioartekotzea

**23**
Representación e Información sectorial
Sektore-ordezkaritza eta sektoreari buruzko informazioa

**24**
Resultados del Plan de Gestión 2023
2023ko Kudeaketa Planaren emaitzak

**25**
Plan de Gestión 2024
2024ko Kudeaketa Plana

**26**
Asociados
Elkartekideak

# ¿ QUÉ SOMOS?

## ORIGEN

Materia Prima Natural  y Renovable
Materia Prima Reciclada





## PERSONAS

Formación
Talento
Diversidad
Cooperación
Seguridad y Salud Laboral

**WWW.CLUSTERPAPEL.COM**

Asociación Clúster del Papel de Euskadi. Portuetxe 23B, 3º, oficina 314. 20018 San Sebastián. 943 309 413. mail@clusterpapel.com

# ZER GARA?

## PROCESOS SOSTENIBLES

Forestal
Materias primas
Ingeniería
Bienes de equipo
Equipos auxiliares
Equipos de control y medida
Consumibles
Logística
Innovación
IA





## BIOPRODUCTOS BIOMATERIALES

Celulosa
Papel
Moldeados
Siliconados
Cartón
Manipulación
Converting
Corte y troquelado
Mandriles
Nuevos usos del papel
Nuevos papeles

# LA ASOCIACIÓN

La Asociación Clúster del Papel de Euskadi es una organización sin ánimo de lucro fundada en 1998 por 13 fabricantes de pasta y papel, 5 fabricantes de bienes de equipo o ingenierías y un centro de formación. Desde entonces, impulsada por la evolución y transformación sectorial, así como por el afán de representar mejor a la cadena de valor papelera se ha renovado de forma importante hasta integrar a la mayoría de las principales organizaciones que la componen en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## Misión

Contribuir a la competitividad y transformación del sector papelero vasco, así como a la mejora de su imagen a través de la cooperación, el trabajo en red y el aprovechamiento de sinergias

## Visión

Ser reconocidos como una organización de referencia, tanto del País Vasco como fuera de él, para el impulso de la transformación del sector papelero vasco, así como para su sostenibilidad medioambiental y para la mejora de su imagen como sector innovador, generador de riqueza y ejemplo de bioeconomía circular.

## Por qué la cooperación

Cooperar y competir es el lema de muchas de las grandes compañías en todo el mundo.

Permite la búsqueda de ventajas competitivas más allá de las que puedan aportar los factores de producción tradicionales.

Realizar actividades en común en vez de hacerlo de forma individual para disminuir costes.

Está más que demostrado que el intercambio de ideas y la comunicación son un potente motor de generación de valor añadido.

Permite obtener ventajas de las grandes organizaciones, sin perder la flexibilidad y reactividad de las más pequeñas.

Comparación y aprendizaje con y de otras empresas.

# ELKARTEA

Euskadiko Paperaren Klusterra Elkartea irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta 1998an sortu zuten 13 enpresa paper-ore eta paper ekoizlek, ekipamendu-ondasunen bost fabrikatzailek edo ingeniaritza-enpresak eta prestakuntzako ikastetxe batek. Harrezkero, sektorearen bilakaerak eta eraldaketak bultzatuta, baita paperaren sektorearen balio-katea hobeto ordezteko asmoz ere, nabarmen berritu da elkartea, eta gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan sektorea osatzen duten erakunde nagusi gehienak dira klusterreko kide.

## Xerdea

Papergintzaren euskal sektorearen lehiakortasuna eta eraldaketa bultzatzea, baina haren irudiaren hobekuntza ere, lankidetzaren, sareko lanaren eta sinergien bitartez.

## Ikuspegia

Euskal Herriko zein kanpoko erreferentziazko erakundetzat har gaitzaten lortzea, papergintzaren euskal sektorearen eraldaketari bultzada bat emateko zein haren ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko eta haren irudia hobetzeko, sektore berritzaile, aberastasuna sortzen duen sektore eta bioekonomia zirkularreko eredu den sektore gisa.

## Zergatik lankidetza

Lankidetzan jardutea eta lehiatzea dira mundu osoko konpainia handi askoren leloa.

Abantaila lehiakorrak bilatzeko aukera ematen du, ekoizpen faktore tradizionalek eman ditzaketenez harago.

Jarduerak elkarrekin egitea, bakoitzak bere aldetik egin ordez, kostuak murrizteko.

Soberan dago egiaztatuta ideien elkartrukea eta komunikazioa balio erantsia sortzeko motor indartsua direla.

Organizazio handien abantailak lortzeko aukera ematen du, txikienen malgutasuna eta erreaktibotasuna galdu gabe.

Beste enpresa batzuekiko alderaketa eta ikaskuntza.

La Asociación la integran organizaciones de la cadena de valor del papel y del cartón, desde el área forestal hasta la manipulación y transformación de papel y cartón pasando por ingenierías, fabricantes de equipos auxiliares, bienes de equipo, consumibles,...

Paperaren eta kartoiaren balio-kateko erakundeek osatzen dute Elkartea, hasi basogintzatik eta paperaren eta kartoiaren manipulazio eta eraldaketaraino, tartean ingeniaritzak, eta ekipo laguntzaileen, ekipamenduko ondasunen eta ondasun kontsumigarrien fabrikatzaileak,...

**10**
**FABRICANTES DE PASTA Y PAPEL**

**6**
**MANIPULADORES TRANSFORMADORES**

**1**
**CENTRO DE FORMACIÓN**

**CLUSTERPAPEL**
Asociación Cluster del Papel de Euskadi

**2**
**CENTROS I+D+i**

**24**
**PROVEEDORES SECTORIALES**

# PERFIL DEL SOCIO 2023

## NÚMERO DE SOCIOS POR EMPLEO GENERADO




BAZKIDEAK, SORTUTAKO ENPLEGUAREN ARABERA

- **Hasta 25 trabajadores** — 25 langile arte
- **Entre 26 y 100 trabajadores** — 26 - 100 langile
- **Entre 101 y 200 trabajadores** — 101 - 200 langile
- **Entre 201 y 300 trabajadores** — 201 - 300 langile

## NÚMERO DE SOCIOS POR FACTURACIÓN




BAZKIDEAK, FAKTURAZIOAREN ARABERA

- **Hasta 5 M de €** — 5 M € arte
- **Más de 5 y menos de 50 M de €** — 5 M € baino gehiago eta 50 M € baino gutxiago
- **Entre 50 y 100 M de €** — 50-100 milioi € artean
- **Más de 100 M de €** — 100 milioi € baino gehiago

## NÚMERO DE SOCIOS POR % DE EXPORTACIÓN




BAZKIDEAK, ESPORTAZIOEN ARABERA

- **Hasta el 25%** — %25 arte
- **Más del 25% y menos del 50%** — % 25 baino gehiago eta % 50 baino gutxiago
- **Entre el 50% y el 75%** — %50 - %75
- **Más del 75%** — %75 baino gehiago

## ASOCIADOS CERTIFICADOS ISO 9001




ISO 9001 ZIURTAGIRIA DUTEN ELKARTEKIDEAK

- **% Empresas certificadas** — Enpresen % du ziurtagiria
- **% Empresas no certificadas** — Enpresen % ez du ziurtagiria

# 2023ko BAZKIDEAREN PROFILA

# LAS CIFRAS DE LA ASOCIACIÓN 2023

**3.207**
**EMPLEO**

**1.554 millones €**
**FACTURACIÓN**

**67 millones €**
**INVERSIONES**

**1.134.273 t**
**PRODUCCIÓN**
**CELULOSA Y PAPEL**

**752 millones €**
**EXPORTACIONES**
**48% INTENSIDAD EXPORTADORA**

# 2023ko ERAKUNDEAREN ZENBAKIAK

# ¿Qué ofrece nuestra asociación?

# Zer eskaintzen du gure elkarteak?

## Reforzar la competitividad del sector papelero

- Integra la cadena de valor del sector papelero.
- Abierta a nuevas incorporaciones.
- Permite el encuentro en un mismo foro de clientes y proveedores.
- Permite mejorar las relaciones y comunicación entre empresas del sector.
- Aumenta la visibilidad y el posicionamiento del asociado.
- Interlocución directa con distintos tipos de empresas del sector del papel.
- Contacto directo con técnicos del sector a través de los distintos foros de trabajo.
- Ser partícipes de un grupo de organizaciones que quiere reforzar la imagen y competitividad del sector papelero en el País Vasco.
- Participación en proyectos impulsados desde el Clúster con otras empresas del sector o aprovechar la estructura del Clúster para impulsar proyectos.
- Disponer de información actualizada del sector.

## Paperaren sektorearen lehiakortasuna indartzea

- Paperaren sektorearen balio-katea osatzen du.
- Bazkide berriei irekita dago.
- Foro berean bezeroak eta hornitzaileak elkartzeko aukera ematen du.
- Sektoreko enpresen arteko harremanak eta komunikazioa hobetzeko aukera ematen du.
- Bazkidearen ikusgarritasuna eta posizionamendua hobetzen ditu.
- Paperaren sektoreko enpresa mota ezberdinekiko harreman zuzena.
- Sektoreko teknikariekiko harreman zuzena, laneko foro ezberdinen bitartez.
- EAEn paperaren sektorearen irudia eta lehiakortasuna indartu nahi dituen enpresa-talde bateko partaide izatea.
- Klusterrak sektoreko beste enpresa batzuekin bultzatutako proiektuetan parte hartzea, edo Klusterraren egituraz baliatzea proiektuak bultzatzeko.
- Sektoreari buruzko informazio eguneratua izatea.

## Reforzar la imagen del sector

- Permite dar una imagen de sector fuerte, de valor añadido y dinámico.
- Permite que el sector papelero pueda ser considerado por lo que de verdad representa, en cuanto a potencial y generación de riqueza.
- Permite poner en valor el producto papel y los distintos productos que lo usan como soporte, así como las actividades que giran alrededor de él.
- Permite desmitificar el papel y el sector en lo que se refiere a impacto medioambiental.

## Sektorearen irudia indartzea

- Sektorearen irudi indartsua, balio erantsia duena eta dinamikoa emateko aukera ematen du.
- Aukera ematen du paperaren sektorea benetan dena bezala ikusia izan dadin, aberastasuna sortzeko duen gaitasunari dagokionez.
- Paper-produktuari eta papera euskarritzat erabiltzen duten produktuei, eta paperarekin lotutako jarduerei balioa ematea ahalbidetzen du.
- Paperaren eta sektorearen ingurumenarekiko inpaktuari dagokionez dauden usteak desmitifikatzea ahalbidetzen du.

## Reforzar las relaciones institucionales

- La política de clústeres es una actividad promovida y apoyada por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.
- Permite tener a la Administración mejor conocimiento de la realidad del sector.
- Permite acceder a programas que el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente desarrolla para empresas asociadas a clústeres.
- Permite un acceso más fácil a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco.
- Permite defender mejor los intereses sectoriales.

## Erakundeekiko harremanak indartzea

- Klusterren politika Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatzen eta babesten duen jarduera da.
- Sektorearen errealitatea hobeto ezagutzeko aukera ematen dio Administrazioari.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak klusteretako bazkide diren enpresentzako garatzen dituen programetan sartzeko aukera ematen du.
- Eusko Jaurlaritzako Sailetara errazago iristeko aukera ematen du.
- Sektorearen interesak hobeto defendatzeko aukera ematen du.



## Reforzar la formación de personas

- Permite analizar necesidades de formación en común y la búsqueda de formas de satisfacer las mismas independientemente de la oferta de formación del mercado.
- Permite detectar y preparar la transmisión del conocimiento en las organizaciones.

## Reforzar la gestión

- Impulsar el desarrollo de sistemas de gestión trabajando la gestión avanzada.
- Intercambio de experiencias en gestión.
- Aprendizaje mediante benchmarking en Personas, Prevención de Riesgos Laborales, Medio Ambiente.

## Reforzar la manufactura avanzada

- Conocer nuevas posibilidades de mejora en las áreas de mantenimiento y producción.
- Desarrollar nuevas capacidades dentro de la industria 4.0.

## Reforzar la sostenibilidad medioambiental

- Relación con el Departamento de Medio Ambiente.
- Trabajar en común la minimización de impactos ambientales asegurando la competitividad de las empresas.
- Afrontar con mayor seguridad los nuevos desarrollos legislativos.

## Reforzar la internacionalización

- Aprovechar sinergias en mercados exteriores y aprovechar el conocimiento de éstos.

## Reforzar la gestión de las personas

- Conocer la forma en que las distintas organizaciones gestionan las personas y los equipos, así como nuevas posibilidades de gestión de éstas.
- Trabajar en común el desarrollo de las personas en las organizaciones y así mejorar la competitividad de las mismas.
- Actividades en el área de Prevención de Riesgos Laborales.

## Reforzar la innovación y la tecnología

- Detectar necesidades comunes para desarrollar investigaciones o proyectos y alcanzar cotas tecnológicas superiores.
- Aprovechar el conocimiento de empresas de distintos niveles de la cadena de valor en el desarrollo de proyectos de investigación.

## Pertsonen trebakuntza indartzea

- Trebakuntza beharrak elkarrekin aztertzeko aukera ematen du, eta behar horiek betetzeko moduan elkarrekin bilatzekoa, merkatuko trebakuntza-eskaintzetatik aparte.
- Organizazioetan ezagutzaren transmisioa antzemateko eta prestatzeko aukera ematen du.

## Kudeaketa indartzea

- Kudeaketa-sistemen garapena bultzatzea, kudeaketa aurreratua landuz.
- Kudeaketako esperientzien elkartrukea.
- Ikaskuntza benchmarking delakoaren bitartez, Pertsonen, Lan-arriskuen Prebentzioaren eta Ingurumenaren arloetan, eta beste hainbatetan.

## Manufaktura aurreratua indartzea

- Hobekuntzarako aukera berriak ezagutzea, mantentze-lanen eta ekoizpenaren esparruetan.
- Gaitasun berriak garatzea 4.0 industriaren barruan.

## Ingurumenaren jasangarritasuna indartzea

- Ingurumen Sailarekiko harremana.
- Elkarrekin lantzea ingurumenarekiko inpaktua minimizatzeko arazo kolektiboak, enpresen lehiakortasuna ziurtatuta.
- Lege-garapen berriei segurtasun handiagoz aurre egitea.

## Nazioartekotzea indartzea

- Kanpoko merkatuetan sinergiak aprobetxatzea, bai eta horien ezagutza ere.

## Pertsonen kudeaketa indartzea

- Enpresek pertsonak eta lantaldeak kudeatzeko dituzten moduak ezagutzea, bai eta pertsonak kudeatzeko aukera berriak ere.
- Elkarrekin lan egitea, enpresetan pertsonen garapena lortzeko eta, modu horretan, lehiakortasuna hobetzeko.
- Lan-arriskuen prebentzioko jarduerak.

## Berrikuntza eta teknologia indartzea

- Behar komunak antzematea ikerketak edo proiektuak garatzeko, eta teknologia-maila handiagoa lortzea.
- Balio-kateko maila ezberdinetako enpresek duten ezagutza aprobetxatzea ikerketa-proiektuen garapenean.

## Órganos de Gobierno: Asamblea y Junta Directiva

La Asamblea General Ordinaria se celebró el 8 de junio de 2023 con una asistencia del 52 % de los asociados. Esta aprobó la gestión del año precedente y las líneas de trabajo a desarrollar a lo largo de 2023.

De forma previa, siguiendo lo estipulado en los estatutos de la Asociación, se celebró una Asamblea Extraordinaria con el objeto de modificar el Junta Directiva. En particular el cargo de presidente que recae cada dos años en una empresa diferente.

Para el periodo 2023 – 2025 la Junta Directiva la integran las siguientes 12 empresas:

| | |
|---|---|
| PRESIDENCIA | Munksjö Tolosa, S.A.U |
| VICEPRESIDENCIA | Cominter Tisú, S.L. |
| TESORERÍA | Papelera del Oria, S.A. |
| SECRETARÍA | Voith Paper, S.A. |
| VOCALÍAS | Celulosas Moldeadas de Atxondo, S.A.U<br>Itasa<br>Lucart Tissue & Soap, S.L.U.<br>Papel Aralar, S.A.<br>Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga, S.A.<br>Papresa, S.L.<br>Smurfit Kappa Nervión, S.A.<br>Zubialde, S.A. |

Esta es el máximo poder ejecutivo entre Asambleas y se reunió en cuatro ocasiones (2/3; 4/5; 28/9 y 14/12) a lo largo del año. En ella participa, además, un representante de SPRI y cualquier asociado que no sea miembro de esta puede participar en sus reuniones

## Modificación de estatutos

La Asamblea Extraordinaria celebrada el 7 de noviembre aprobó una modificación de estatutos con el objetivo de asegurar un funcionamiento de la Asociación democrático y plural en base a las exigencias de la legislación vigente sobre asociaciones. Los nuevos estatutos se encuentran inscritos en el Registro General de Asociaciones del País vasco.

## Seguimiento del Plan de Gestión 2023 y del Plan Estratégico 2021 - 2025

La Asociación abordó en 2023 las 19 acciones previstas en su Plan de Gestión.

Para la evaluación de los resultados alcanzados en el tercer año del ciclo estratégico 2021 – 2025 se utilizaron 59 indicadores con objetivos predefinidos en el Plan Estratégico. En el 80 % de estos indicadores se alcanzaron o superaron los objetivos, mientras que en el 20 % se lograron resultados positivos, pero sin llegar hasta el nivel deseado.

En el 63 % de las acciones trabajadas se alcanzaron o superaron los objetivos en todos sus indicadores, mientras que en el 37 % de acciones restantes alguno de sus indicadores no alcanzó los objetivos previstos.

## Gobernu organoak: Batzarra eta Zuzendaritza Batzordea

2023ko ekainaren 8an egin zen Ohiko Batzar Orokorra, eta elkartekideen % 52 etorri zen batzarrera. Aurreko urteko kudeaketa eta 2023an garatu beharreko lan-ildoak onartu ziren batzar hartan.

Aurrez, Elkartearen estatutuetan xedatutakoari jarraikiz, Ez-ohiko Batzarra egin zen, Zuzendaritza Batzordea aldatzeko helburuz. Presidente kargua, hain zuzen ere, bi urtean behin enpresa ezberdin bati egokitzen zaiona.

2023-2025 aldirako, ondorengo 12 enpresek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea:

| | |
|---|---|
| LEHENDAKARITZA | Munksjö Tolosa, S.A.U |
| LEHENDAKARIORDETZA | Cominter Tisú, S.L. |
| DIRU - ZAINTZA | Papelera del Oria, S.A. |
| IDAZKARITZA | Voith Paper, S.A. |
| BATZORDEKIDEAK | Celulosas Moldeadas de Atxondo, S.A.U<br>Itasa<br>Lucart Tissue & Soap, S.L.U<br>Papel Aralar, S.A.<br>Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga, S.A.<br>Papresa, S.L.<br>Smurfit Kappa Nervión, S.A.<br>Zubialde, S.A. |

Zuzendaritza Batzordea da Batzordeen artean botere betearazle gorena, eta lau aldiz elkartu zen urtean zehar (martxoaren 2an, maiatzaren 4an, irailaren 28an eta abenduaren 14an). SPRI sozietatearen ordezkari batek hartzen du parte batzorde horretan, eta batzordekide ez den edozein elkartekidek har dezake parte batzordearen bileretan

## Estatutuak aldatzea

Azaroaren 7ko Ez-ohiko Batzarrean, estatutuen aldaketa bat onetsi zuen, Elkartearen funtzionamendua demokratikoa eta anitza izan dadin ziurtatzeko helburuz, era horretan indarrean dagoen elkarteei buruzko legeriaren exijentziak betetzeko. EAEko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta daude estatutu berriak.

## 2023ko Kudeaketa Planaren eta 2021-2025 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipena

Elkarteak bere Kudeaketa Planean aurreikusitako 19 ekintzak bete zituen 2023an.

2021-2025 aldiko ziklo estrategikoaren hirugarren urtean lortutako emaitzak ebaluatzeko, 59 adierazle erabili ziren, Plan Estrategikoan aurredefinitutako helburuekin. Adierazle horien % 80an lortu edo gainditu ziren ezarritako helburuak, eta emaitza positiboak lortu ziren % 20an, baina ezin izan zen nahi zen mailaraino iritsi.

Landutako ekintzen % 63an lortu edo gainditu ziren helburuak adierazle guztietan, eta gainerako ekintzen % 37an, adierazleren batek ez zituen aurreikusitako helburuak bete.

## Contribución a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS´s)

La Asociación Clúster del Papel está comprometida con la consecución de los ODS's y enfoca su plan de acción y seguimiento de actividad hacia ello. Concretamente:

a. Ha identificado y priorizado de forma participada con sus asociados los ODS's a los que contribuye con el desarrollo de su actividad.
b. Ha seleccionado 4 ODS's prioritarios para enfocar y medir su contribución a la consecución de la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.
c. Tiene alineados sus indicadores de seguimiento de su actividad con los ODS's prioritarios para poder medir de forma objetiva su contribución a la consecución de estos.
d. Dispone de una política de sostenibilidad en el marco de los objetivos de desarrollo sostenible.
e. Revisa anualmente su política de sostenibilidad y realiza el seguimiento de los indicadores correspondientes.

## Garapen jasangarrirako helburuei (GJH) ekarpena

Paperaren Klusterra Elkartea garapen jasangarrirako helburuak lortzearekin konprometituta dago, eta horretara bideratzen ditu bere ekintza-plana eta jardueraren jarraipena. Zehazki:

a. Elkartekideekin batera, bere jarduera garatzean bultzatzen dituen Garapen Jasangarriko Helburuak identifikatu eta lehenetsi ditu.
b. Lehentasunezko Garapen Jasangarriko 4 Helburu aukeratu ditu, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda betetzen laguntzeko, eta laguntza hori neurtzeko.
c. Haren jardueraren jarraipen-adierazlean Garapen Jasangarriko lehentasunezko Helburuekin lerrokatuta ditu, helburu horiei zenbaterainoko ekarpena egiten dion modu objektiboan neurtu ahal izateko.
d. Jasangarritasun-politika du, garapen jasangarriko helburuen arloan sartzen dena.
e. Urtero berrikusten du bere jasangarritasun-politika, eta dagozkion adierazleen bete-mailaren jarraipena egiten du.




| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Nº de indicadores | 10 | 18 | 14 | 29 | Adierazle-kopurua |
| Nivel de cumplimiento | 80% | 61% | 64% | 97% | Betetze-maila |

## Grupos de trabajo

Los grupos de trabajo son la herramienta básica para la dinamización de la cooperación dentro de la Asociación. Esta los fomenta, impulsa, coordina, cohesiona y dinamiza con el objetivo de:

- identificar sinergias, evaluarlas y explotarlas,
- aprender de los demás,
- intercambiar experiencias y casos de éxito,
- afrontar retos comunes,
- así como realizar proyectos en común de todo tipo.

Además, distintos grupos de trabajo utilizan el benchmarking como una herramienta de aprendizaje y mejora continua en gestión de personas, seguridad y salud laboral, así como en sostenibilidad medioambiental. Durante el año se celebraron 24 reuniones de trabajo en 11 áreas diferentes.

## Trabajo en red con otras organizaciones

El trabajo en red con otras organizaciones es prioritario para la Asociación que ha colaborado en 2023 con una red de 15 organizaciones, clúster o no, de distintos ámbitos con el objeto de potenciar su actividad de dinamización de la cooperación en el sector papelero.

Además, ha participado en distintos foros promovidos por SPRI y el departamento de desarrollo económico, sostenibilidad y medio ambiente que han abordado, entre otros, la vigilancia competitiva, la gestión clúster, la implantación de los objetivos de desarrollo sostenible, la descarbonización o el análisis de coyuntura económica.

## Comunicación con asociados

La comunicación interna se basa principalmente en la relación personal y directa con los asociados, así como en la elaboración y distribución de un Boletín mensual de información general sobre actividades. Este último también permite transmitir nuestra actividad a potenciales socios de la cadena de valor del papel y del cartón.

## Lan-taldeak

Lan-taldeak dira Elkarte barruan lankidetza dinamizatzeko oinarrizko tresnak. Elkarteak lan-taldeok sustatu, bultzatu, koordinatu, kohesionatu eta dinamizatu egiten ditu, ondorengo helburuekin:

- sinergiak identifikatzea, ebaluatzea eta ustiatzea,
- besteengandik ikastea,
- esperientziak eta arrakasta izan duten kasuak elkartrukatzea,
- erronka komunei aurre egitea, eta
- era guztietako proiektu komunak egitea

Gainera, lantalde ezberdinek erabiltzen dute benchmarkinga ikaskuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako tresna gisa, pertsonen kudeaketan, laneko segurtasun eta osasunean zein ingurumen-jasangarritasunean. Urtean zehar laneko 24 batzar egin zen, hamaika esparru ezberdinetan.

## Sareko lana beste erakunde batzuekin

Beste erakunde batzuekin sarean lan egitea lehentasunezko kontua da Elkartearentzako, eta hainbat arlotako 15 erakundez osatutako sare batekin –klusterrak eta kluster ez direnak– kolaboratu du Elkarteak 2023an, papergintzaren sektorean lankidetza dinamizatzeko bere jarduera indartzeko helburuz.
Horrez gain, SPRIk eta ekonomia garapen, jasangarritasun eta ingurumen sailak sustatutako hainbat forotan hartu du parte klusterrak; foro horietan, hainbat gai jorratu dira, hala nola lehiakideak zaintzea, kluster kudeaketa, garapen jasangarrirako helburuen ezarpena, deskarbonizazioa edo koiuntura ekonomikoaren analisia

## Elkartekideekiko komunikazioa

Bazkideekiko harreman pertsonal eta zuzenean oinarritzen da, batez ere, barne-komunikazioa, bai eta hilero prestatzen eta banatzen den jarduerei buruzko informazio orokorreko Buletinean. Azken horrek gure jarduera paperaren eta kartoiaren balio-kateko bazkide potentzialei transmititzea ere ahalbideratzen du.

# ACTIVIDADES EN COOPERACIÓN 2023

4 Informes de Coyuntura
Informe Responsabilidad Social
Estadísticas anuales
Basque Paper Directory

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS

41 actividades
de representación

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS

48%
Exportación

8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

1 Grupo de trabajo

8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO




2 Grupos de trabajo
1 Política de Sostenibilidad

6 AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO
8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO
17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS
12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES

# 2023an LANKIDETZAN EGINDAKO JARDUERA




4 Juntas Directivas
2 Asambleas Extraordinarias
1 Asamblea Ordinaria
44 actividades en cooperación

4 Proyectos

4 Grupos de trabajo
1 Barómetro digitalización

12 Grupos de trabajo
1 Benchmarking

5 Grupos de trabajo
2 Benchmarking
1 Publicación: “Yo elijo ser papelero”

## Innovación

Para acelerar la innovación, la asociación identifica, impulsa y configura proyectos de I+D+i en los que participan principalmente empresas asociadas. La propia gerencia y la Junta Directiva actúan como Comité de Vigilancia Tecnológica y se trabaja en colaboración con otras organizaciones, centros tecnológicos, clústeres y asociaciones sectoriales, para identificar nuevos proyectos y evaluar su viabilidad.

A lo largo del 2023 se identificaron 13 posibles proyectos de I+D+i. De estos, se ayudaron a configurar, 6. El Clúster participó en 3 de ellos.

REPAPEL

Se trata de un proyecto Hazitek estratégico apoyado por el Gobierno Vasco con un presupuesto que se acerca a los 4,5 millones de € iniciado en octubre de 2021 y concluido en diciembre de 2023. Ha trabajado la valorización de distintas corrientes de residuos sectoriales (dregs, lodos calizos, lodos de depuración de aguas, cenizas de distintos tipos) en la fabricación de hormigones, mezclas bituminosas, formulación de floculantes y tensioactivos.

Se han desarrollado actividades de investigación industrial y desarrollo experimental para llegar a demostradores piloto que indican la viabilidad de las valorizaciones estudiadas a una escala previa a una aplicación industrial.

Destacamos que se han realizado con éxito ensayos para la construcción con hormigones prefabricados a partir de cenizas carbonatadas y lodos calizos, y para producir mezclas bituminosas a partir de bio-ligantes basados en lignina. La lignina también ha sido validada como base para el diseño de floculantes y tensioactivos utilizados en el tratamiento de aguas y la limpieza industrial.

Por último, se ha desarrollado una herramienta de apoyo a la toma de decisiones en la gestión de subproductos papeleros.

Cuenta con la participación de 14 organizaciones, tanto fabricantes de pasta y papel como miembros de la Red Vasca de Ciencia y Tecnología como potenciales usuarios de los materiales secundarios obtenidos fruto de la valorización:  Aclima, Asfaltia, Campezo, CEIT, Clúster del Papel, Ekotek, Etxeberria Prefabricados, Feralco, Ondoan, Sader, Smurfit Kappa Nervión, Tecnalia, TSK y Zubialde.

## Berrikuntza

Berrikuntza azeleratzeko, enpresa elkartekideek parte hartzen duten I+G+b proiektuak identifikatzen, bultzatzen eta eratzen ditu elkarteak. Gerentziak berak eta Zuzendaritza Batzordeak Zaintza Teknologikoko Batzorde lanak egiten dituzte, eta beste erakunde, zentro teknologiko, kluster eta sektoreko elkarte batzuekin lankidetzan jarduten du, proiektu berriak identifikatzeko eta proiektu horien bideragarritasuna ebaluatzeko.

I+G+b-ko balizko 13 proiektu identifikatu ziren 2023. urtean. Horietatik sei garatzen lagundu zen. Horietako hirutan hartu du parte Klusterrak.

REPAPEL

Eusko Jaurlaritzak ia 4,5 milioi eurorekin babestutako Hazitek proiektu estrategiko bat da, 2021eko urrian hasi eta 2023ko abenduan amaitu dena. Hormigoien fabrikazioan, nahasketa bituminosoetan, tentsioaktiboen eta malutatzaileen formulazioan sektoreko hondakin-korronte ezberdinei (dreg direlakoak, kare-lohiak, ur-arazketako lohiak, askotariko errautsak) balioa ematea izan da proiektuaren eginkizuna.

Industria-ikerkuntzako eta garapen esperimentaleko jarduerak garatu dira, industrian aplikatu baino lehenagoko eskala batean aztertutako balorizazioen bideragarritasuna adierazten duten erakusle pilotuetara iristeko.

Nabarmendu behar dugu arrakastaz egin direla karbonatozko errautsetatik eta kareharrizko lohietatik abiatuta aurrefabrikatutako hormigoiekin eraikitzeko eta ligninan oinarritutako bio-ligatzaileetatik abiatuta nahasketa bituminosoak ekoizteko entseguak. Uren tratamenduan eta industria-garbiketan erabilitako malutatzaileak eta tentsioaktiboak diseinatzeko oinarri gisa eta baliozkotu da lignina.

Azkenik, papergintzako azpiproduktuen kudeaketan erabakiak hartzen laguntzeko tresna bat garatu da.

14 erakundek hartzen du parte proiektuan, paper-ore eta paper ekoizleek zein Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko kideek eta balorizazioaren ondorioz lortutako bigarren mailako materialen erabiltzaile izan daitezkeenek:  Aclima, Asfaltia, Campezo, CEIT, Paperaren Klusterra, Ekotek, Etxeberria Prefabricados, Feralco, Ondoan, Sader, Smurfit Kappa Nervión, Tecnalia, TSK eta Zubialde.

## DCARTECH

Se trata de un proyecto financiado por el programa Elkartek 2023 con una duración de dos años que busca acercar la oferta y la demanda tecnológica en el ámbito de la descarbonización para contribuir a identificar las cadenas de valor más relevantes en el ámbito de la descarbonización.

Colaboramos con los clústeres ACE (Sector Energético), ACLIMA (Industrias Medioambientales), AFV (Forja y Fundición) y SIREDEX (Industria siderúrgica)

Los principales objetivos del proyecto son:

- Caracterización de las cadenas de valor actuales, o potenciales, en Euskadi para el desarrollo y oferta de medidas y tecnologías de descarbonización dirigidas a los 5 sectores industriales involucrados.
- Priorización de los desarrollos tecnológicos a impulsar.
- Organización de talleres de trabajo con la participación de empresas de los sectores consumidores y de las cadenas de valor identificadas.

Como hito más relevante de los trabajos realizados en 2023 destacamos la celebración del I Foro de Descarbonización celebrado el 8 de noviembre con la asistencia de más de 150 personas, tanto de la oferta como de la demanda de soluciones de descarbonización, así como de distintas administraciones y centros de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación

## Industria 4.0

El desarrollo de la industria 4.0, la digitalización y la automatización en el sector papelero son claves para mantener su competitividad. Su implantación extendida es uno de los retos sectoriales claves y la Asociación busca desarrollar esta área con la organización de distintas jornadas técnicas y actividades. El sector cuenta además con el soporte de un laboratorio especializado, LABPAPER.

Además de la participación en la feria SPAPER y el apoyo a su organización, del Foro Técnico Papelero y del barómetro sobre digitalización, se celebró una sesión de trabajo vinculada con el área de mantenimiento el 11 de abril con la asistencia de 13 personas de 7 empresas asociadas. Se centró en el mantenimiento de válvulas en colaboración con nuestro socio INDUTEC, así como en el intercambio de experiencias, dudas y conocimiento sobre mantenimiento en las fábricas papeleras.

Igualmente, el 16 de noviembre, en colaboración con nuestros socios Comercial Aizpurua / Lamberti Spa, Lantier, Klinger, Optimitive y Voith celebramos unas jornadas técnicas que contaron con la asistencia de 51 personas de 18 organizaciones. Estas se centraron en el uso de materias primas aptas para el contacto con alimentos y optimización del uso del almidón, estanqueidad y sellado, mejora de la sequedad y perfil de humedad e implantación de inteligencia artificial en el proceso productivo.

## DCARTECH

Elkartek 2023 programak finantzatutako proiektua da, bi urteko iraupena izango duena, eta deskarbonizazioaren arloan dagoen eskaintza eta eskari teknologikoa hurbiltzea du helburu, deskarbonizazioaren arloko balio-kate garrantzitsuenak identifikatzen laguntzeko.

ACE (Energiaren Sektorea), ACLIMA (Ingurumenaren arloko Industriak), AFV (Forja eta Galdaketa) eta SIREDEX (Industria siderurgikoa) klusterrekin kolaboratzen dugu.

Proiektuaren helburu nagusiak dira:

- Gaur egungo Euskadiko balio-kateak edo balizkoak karakterizatzea, inplikatuta dauden bost industria-sektoreei zuzendutako deskarbonizazio-neurriak eta -teknologiak garatzeko eta eskaintzeko.
- Bultzatu beharreko garapen teknologikoak lehenestea.
- Lan-tailerrak antolatzea, sektore kontsumitzaileetako eta identifikatutako balio-kateetako enpresen parte-hartzearekin.

2023an egin diren lan garrantzitsuenen artean, nabarmentzekoa da azaroaren 8an egin zen I. Deskarbonizazio Foroa; deskarbonizaziorako soluzioen eskaintzaren eta eskariaren arloetako 150 lagunek baino gehiagok hartu zuen parte, baita hainbat administraziotako kideek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko zentroek ere.

## 4.0 Industria

Papergintzaren sektorean, industria 4.0 garatzea, digitalizazioa eta automatizazioa funtsezkoak dira lehiakortasunari eusteko. Hura modu hedatuan ezartzea da sektorearen funtsezko erronketako bat, eta Elkarteak arlo hori garatu nahi du, askotariko jardunaldi teknikoak eta jarduerak antolatuta. LABPAPER laborategi espezializatuaren laguntza ere badu sektoreak.

SPAPER azokan parte hartzeaz eta hura antolatzen laguntzeaz gain, eta Paperaren Foro Teknikoan eta digitalizazioari buruzko barometroan parte hartzeaz gain, mantenuaren alorrarekin lotutako lan-saioa egin zen apirilaren 11n, eta elkarteko kide diren zazpi enpresatako 13 lagunek hartu zuen parte. Balbulen mantenua izan zen gai nagusia –INDUTEC gure bazkidearekin lankidetzan–,eta paper-lantegietako mantentze-lanen inguruko esperientziak, zalantzak eta ezagupenak trukatu zituzten partaideek.

Azaroaren 16an, bestalde, Comercial Aizpurua / Lamberti Spa, Lantier, Klinger, Optimitive eta Voith gure bazkideekin lankidetzan, jardunaldi teknikoak egin genituen; 18 erakundetako 51 lagun etorri ziren. Kasu honetan, elikagaiekin kontaktua izateko aproposak diren lehengaien erabilera eta almidoiaren erabileraren optimizazioa, estankotasuna eta zigilatzea, lehortasunaren hobekuntza eta hezetasun-profila eta ekoizpen-prozesuan adimen artifiziala ezartzea izan ziren landu zirengaiak.

SPAPER

Única feria sectorial del Estado, celebró su 3ª edición del 7 al 9 de marzo de 2023 junto con la feria SMAGUA.

Contó con 30 expositores entre los que estaban representados 12 de nuestros socios. El número de visitantes fue de 2.610, en notable ascenso respecto a la edición anterior (+41%).

La próxima cita es del 4 al 6 de marzo de 2025.

### V Foro técnico papelero

Coincidiendo con la celebración de la feria SPAPER en Zaragoza organizamos el 8 de marzo la 5ª edición de nuestro Foro Técnico Papelero cuyo objetivo es presentar novedades y soluciones técnicas a retos del mundo papelero, nuevos conceptos y tendencias de desarrollo de la actividad papelera apoyándonos en la experiencia y el saber hacer de nuestros socios del área de Bienes de Equipo, Equipos Auxiliares, Consumibles, Equipos de Control y Medida, Ingenierías, Inteligencia Artificial e I+D+i.

Para su celebración contamos con la colaboración de 8 ponentes (AFRY, BC Materials, Bellmer, Daukat – August Blecher, Lantier, Optimitive, Voith y Valmet) y el patrocinio de cuatro firmas, Bellmer, Daukat – August Blecher, Lantier y Valmet.

En este evento participaron 135 personas de 43 organizaciones, tanto asociadas (48%) como no (52%).

### Labpaper Tolosa

Este laboratorio especializado en celulosa, papel y cartón ubicado en las instalaciones del centro de formación profesional Don Bosco de Tolosa realizó en 2023 2.229 ensayos para 44 clientes diferentes, emitiéndose un total de 150 informes.

El abanico de ensayos ofrecidos supera los 100 de los que 4 de los más demandados (gramaje, resistencia al estallido, determinación de absorción de agua y blancura del papel) se realizan bajo certificación ENAC

### Barómetro digitalización

En marzo pusimos en marcha el proyecto “Barómetro Digitalización Cadena de Valor Papelera” en colaboración con Kaizen Institute con objeto de evaluar el grado de avance de la digitalización en la cadena de valor papelera y reflexionar sobre necesidades en este campo.

El proyecto identificó el grado de madurez de la transformación digital en el sector papel en Euskadi estudiando la implementación de tecnologías digitales como la inteligencia artificial, el internet de las cosas (IoT), el big data, la realidad aumentada, la automatización y la robótica, entre otras en todas las áreas de la industria papelera con el objetivo de mejorar la eficiencia, la productividad y la competitividad de las empresas.

Los resultados de este proyecto se dieron a conocer por Kaizen Insitute en la Asamblea anual.

SPAPER

Sektorearen Estatuko azoka bakarra da, eta 2023ko martxoaren 7tik 9ra egin zen 3. edizioa, SMAGUA azokarekin batera.

30 erakusketari egon ziren, eta gure bazkideetako 12k izan zuten ordezkaritza horien artean. 2.610 bisitari izan zituen azokak, aurreko edizioarekin alderatuta bisitari nabarmen gehiago (+% 41).

2025eko martxoaren 4tik 6ra egingo da hurrengo edizioa

### Paperaren V. foro teknikoa

